

JELTZALE ETA SOZIALISTEN NEGOZIAZIO BATZORDEAK GAUR BILDUKO DIRA AURRERA EGIN ALA EZ ERABAKITZEKO

EAJk eta PSEk gero eta aukera gutxiago ikusten dute gobernu elkarrekin eratzeko

■ Gero eta aukera gutxiago daude EAJk Eusko Jaurlaritza sozialistekin eratzeko. Hala jakinarazi dute buruzagi sozialistek, eta itxura bera eman zuen Xabier Arzalluzek igandean. Gobernu osaketari buruzko behin betiko erabakia gaur hartuko dute, EAJ eta PSE-EEko negoziazio batzordeak bildu ostean.

Erredakzioa / Gasteiz


JAURLARITZAN sartzeko aukera gutxi dutela aitortu dute azken orduotan buruzagi sozialistek, eta baita jeltzaleek ere. Uste dute EAJk jada erabakita duela EAekin Gobernu osatzea eta EHk kanpotik laguntzea. Atzo, aurreko egunotan esandakoa berretsi zuten Nicolas Redondok eta Jose Borrellek, eta balizko hausturaren erantzukizuna jeltzaleen bizkar uzten saiatu ziren.

«Eurek behar dute erabaki. Guk agerian utzi dugu zein den gure borondatea, herri honentzat gobernu plurala nahi dugula alegia. Hala ere, akordioa posible ez balitz, gauden lekuan geratuko gara, lasai asko gainera. Izan ere, oso garbi erakutsi dugu gobernu zabal bat nahi dugula eta hori nahi ez dutenak abertzaleak direla», adierazi zuen Redondok.

Haustura gertatzen bada, beraz, ez ditu sozialistak ustekabe harrapatuko. Jakinarazi dute Gobernuan sartzeko aukerak %20 baino ez direla, eta gainera, pentsatzen dute EAJk abertzaleen gobernu egin nahi duela.

Xabier Arzalluzen hitzetan oinarritu dira hori jakinarazteko. EBBko lehendakariak, izan ere, herenegun Sukarrietan egin ekitaldian, esan zuen ez zaiola beldurrik izan behar EAJ-EA gobernuari EHren laguntzarekin. «Nik ez dut amildegira joango garen beldurrik», adierazi zuen, eta bakebidea «luzea bezain emanorra» izango dela iragarri zuen.

Jeltzaleek ez zuten adierazpenik egin nahi izan atzo. EBB Bilbon bildu zen, sozialistek helarazi dieten txostena aztertzeke. Hala ere, zenbait iturri jeltzaleek jakinarazi dute akordioa sozialis-



Jaurlaritzaren osaketari buruz hitz egiteko bildu zen EBB atzo Bilbon.

SANTIAGO JIMENEZ / EFE

tekin egitea ez dela erraza izango, batez ere PSE-EEk aurkeztu zuen txostena «atzerakoa» delako. PSE-EEk Ardanza txosteneko zenbait puntu Ajuria Eneko Hitzarmenarekin eta Estatutuekin eta Konstituzioarekin lotu ditu eta, sei orritan laburbilduta, jeltzaleei eman diete bakebidea urratzeko baliagarri izan daitekeelakoan. Kontsultatutako iturri jeltzaleek, ordea, uste dute PSE-EEren idatzia Ajuria Eneko Ituneko zenbait puntu baino «atzerakoiagoa» dela.

Elkarrizketa prozesuan «tentsio» gehiago ez jartzeko ahaleginean sozialistek ez erantzutea

erabaki omen dute jeltzaleek. Haatik, orain arte «leial eta garbi» jokatu dutela azpimarratu dute, eta PSE-EEri egotzi diote elkarrizketa prozesua baldintzatzea txostenen filtrazioekin.

Sozialistekiko negoziazioak emaitzarik izango ez balu, gobernu abertzaleak izango luke aukera gehien. EAJk EAekin negoziatuko luke Jaurlaritzaren eraketa eta agian IU gehituko litzateke. Gobernu horrek EHren laguntza izango luke, azken Biltzar Nagusian erabaki hori berretsi baitute.

PSE-EEk gogor kritikatu du azken erabakia gobernu abertza-

lea bada. Redondok legitimotzat hartu du HBekin hitzartzea Jaurlaritza, baina ohartarazi du guztiek jakin beharko luketela «zer ekarriko duen aukera horrek».

Jose Borrellek hari beretik jo zuen. PSOEko batzorde federalek Jaurlaritzaren gaia jorratu zuen atzo, eta ondoren Borrellek adierazi zuen EHren laguntza izango lukeen gobernu abertzale bat ez dela «egonkorra» izango. «Gobernu abertzalea irtenbide okerra da, ez da egonkorra izango eta jarrera nazionalistak erradikalizatzea ekarriko du», iragarri zuen.

Ibarretxek EHrekin akordio parlamentarioak lotu beharko dituela dio Garaikoetxeak

■ EAJrekiko negoziazio prozesua prestatzeko bildu da EA

Agentziak / Gasteiz

EUSKO ALKARTASUNAK ere ez du ikusten aurreko legegintzaldiko hiruko gobernu (EAJ-PSE-EA) berriz osatzeko aukerarik. Negoziatioak porrot egiten badu, Juan Jose Ibarretxek EAJ-EA gobernuari egonkortasuna emango dioten akordio parlamentarioak bilatu beharko dituela esan zuen atzo Carlos Garaikoetxeak. EAren batzar nazionala Gasteizen bildu zen arratsaldean, eta kazetarien aurrean mintzatu zen sarreraren alderdiko lehendakaria.

Akordio parlamentario horiek Euskal Herritarrok taldearekin bilatu beharko direla garbi utzi zuen Garaikoetxeak, eta IUen laguntza ere ez zuen baztertu. «Balizko akordio bati begira EHk ulertu behar ditu alderdiok ditugun aurrekari historikoak, eta zuhur jokatu behar dela gobernuari egonkortasuna emateko. Beraz, zer eztabaidatua badago haiekin».

PSE-EEk baketzeari buruz EAJri aurkeztu dion txostena gaitzetsi zuen Garaikoetxeak, eta agiri horrek ez lukeela EAren onespina jasoko esan zuen. Jeltzale eta sozialisten arteko negoziatioa hautsita, EArekiko negoziatioa hasiko dela nabarmendu zuen Garaikoetxeak; enplegu politika, ekintza soziala eta azpiegituren erreforma aipatu zituen.

IURI buruz esan zuen haren laguntza positiboa izango dela. «aniztasun handiagoa emango lukeelako». Gainera, gai batzuetan Javier Madrazoren alderdiarekin ados jartzea erraza izango litzatekeela esan zuen Garaikoetxeak.

Bestalde, EAk gobernu osaketarako negoziatio batzordea izendatu duela ukatu egin zuen Garaikoetxeak.

Baina EAJrekin bilerak egin dituztela onartu zuen, eta sozialistekin zer gertatzen den argitu orduko izendatuko dutela negoziatio batzordea. X


Baketzeaz gain, gai gehiago ere badirela dio IUK

JAURLARITZAREN osar orain arte aipatu ez den gobernikide berri bat izan daiteke, azken egunotako informazioen arabera: IU-EB. Hiruko gobernu berregitea gero eta zailago ikusten da. Gero eta ziurragoa da gobernu EA eta EAJren artean osatuko dutela, EHren babesarekin. Bigarren aukera horretan, baina, IU ere sar daiteke.

Javier Madrazok atzo adierazi zuenez, Juan Jose Ibarretxek ez dio oraindik Jaurlaritzan sar-

tzeari buruzko ezer esan IU-EBri. Baina deitzen dienean beren proposamenekin joango direla esan zuen.

Izan ere, IU-EBko koordinatzaile nagusiak esan zuenez, baketzearekin ez litzateke inolako arazorik izango EAJrekin akordio batera iristeko, baina politika sozialean arazoak sor daitezke. «Gobernu sendo baten programa ezin da gai bakar batean oinarritua egon, adostasuna lortu behar da langabeziaren, prekaritatearen eta



Javier Madrazo.

XOUSE SIMAL

bazterketa sozialaren gaitetan ere», esan zuen Madrazok. Horren ostean IUKo buruzagiak nabarmendu zuen ez zaiela axola Gobernutik kanpora geratzen badira ere: «Guk gure proposamenak eramango ditugu. Hala ere, gure iraupen politikoa ez dago Gobernuan parte hartzearen menpe».

PPk ere Eusko Jaurlaritzaren osaketari buruz hitz egin zuen atzo. EAeko PPko bozeramaile Leopoldo Barredak zera esan zuen EA eta EAJk EHren

babesarekin Gobernu osatzeari buruz: «EAJk hasieratik nahi izan duen Gobernu inposatuko dio azkenean Ibarretxeri». Barredaren arabera, «EHren babesarekin osatutako gobernu, zilegikoa den arren, nazionalisten erradikalizazioaren isla da». Barredak gogor kritikatu zuen Jaurlaritza osatera hori: «Urriaren 25ean babesa galdu duten alderdien artean osatutako Gobernu baterantz goaz, eta Gobernu hori HBren menpe izango da. X